

## UDALBATZAREN BURUARI

Talde Popularreko zinegotzi Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluan oinarrituta, MOZIO hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin, 2018ko uztailaren 9an Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Donostian motorrak alokatzeko sistemari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Donostian, 27.000 motor inguru ditugu, eta kopuru horrek gure hiria bihurtzen du mila biztanleko halako ibilgailuren bat dutenen ratio handiena duen Espainiako hiriburu. Beraz, esan dezakegu motorra dela donostiarren garraibide gustukoenetako bat, eta egunero erabiltzen dutela beren gestio eta lekualdaketak egiteko hiri barruan.

Aparkalekuei eta mugikortasuna hobetzeari begirako neurriak hartzeko eskatu diogu Udal Gobernuari -batez ere uda partean-. Alabaina, gaiaz arduratzen den zinegotzitzak, agintaldi honetan, orain arte ez du aipatutako arazoak arintzeko neurririk iragarri; are gehiago, gure hiriko motor jabeek sufritzen dituzten arazoak pixka bat bederen arintzeko bere aldetik zerbait jartzeko asmorik ere ez du erakutsi. Kontuan hartu behar da Espainiako bigarren Zirkulazio Zerga handiena dutela donostiarrek.

Gure taldeak, konponbideak proposatzeko beste saiakera bat eginez, interpelazio bat egin dio zinegotzi ordezkariari Espazio Publikoaren Batzordean, gure hirian motor elektrikoak alokatzeko zerbitzu bat martxan jartzea aztertzearen egokitasunari buruz. Zerbitzu hori badago jada Espainiako eta Europako beste hiri batzuetan, eta arrakasta handia ari da izaten hiri askotan; gainera, hiriko mugikortasunarentzat eta ingurumenarentzat onura handiak ditu.

Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari ez zitzaion gaizki iruditu proposamena. Esan zuen aztertu eta planteatu egin behar dela, hurrengo udal aurrekontuetan finantzatzeko aukerari begira. Alabaina, uste dugu beharrezkoa dela Udal Taldeak ahalegin bat egitea, aurrez egin beharreko lanak aurreratzeko eta gai honi buruzko irtenbideak planteatu ahal izateko arduraz, arrazoizko epeetan eta ahalik eta informazio gehienarekin.

Aurreko hori guztia dela eta, Talde Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Donostiako Udaltzarak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die Mugikortasun Sailak ahalik eta azkarren egin eta aurkez diezaiela talde politikoei gure hirian motor elektrikoak alokatzeko sistema bat ezartzeari buruzko txosten bat, jarduera hori, hala egokituz gero, 2019ko hurrengo udal aurrekontuetan kargatzeko.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an.

Miren Albistur Garmendia,  
Talde Popularraren bozeramailea.